

BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

Edukiak


- Antzinako etorkinak 1
- Zuzenketa 1
- Bidankozeko abizenak: Sanz 2
- Sanz ospetsu bat 2
- Aizagar etxea 3
- Nire erresuma bi astorengatik 3
- Toponimia: *Lapitxorronga* 4
- 70 artzain bidankoztar (1966/12/16) 4

Kontaktua:

bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

www.vidangoz.com/bidankozarte/



Antzinako etorkinak

Duela lau mendeko neguan, hau da, 1616. urtekoan, bidankoztar batek (nahiz eta bere jatorria bere bizilagun askok zalantzan jartzen zuten) Bidankozeko bizilaguntzat onartuta izatea eskatzen zuten Erronkaribarrari.

Horrela, onetsita izateko, funtsezko bi baldintza betetzen zituela adierazten zuten: etxea baten jabe izan eta aranean gutxienez 30 urtez bizi izana.

Juan de Mongelos izena zuen istorio honen protagonistak, beharbada agote bat, baztertuta bizi zen gizatalde horren kidea, gizarteak legenardun itxura eta jatorri ezezaguna izateagatik baztertzen zuena.

Agote gehien izan ziren zonaldeak Baztan eta Erronkari bailarak izan ziren. Baztanen kasuan, Arizkungo Bozate auzoan duela gutxi arte agoteak egon zireneko datuak daudenez, argi dugu bertan izan zuten garrantzia eta horrexegatik hainbat ikerketa egin dira gutxi honen inguruan.

Gure aranean, ordea, ez da hainbeste

ikerketa sakonik egin, beraz, zaila da zehaztea agoteek norainoko garrantzia izan zuten gurean.

Hala ere, prozesu judicial hau ez da Erronkaribarrean gai honen inguruan izan zen bakarra. Eta edozein kasutan, honen atzean gizakia bezain zaharra den zera bat dago: kanpokoari edo atzerritarari beldurra.

Antzinako erronkaritarrek ez zuten begi onez ikusten euren eskubideak, euren pribilegioak, kanpotik etorritakoei orokorrean, eta agoteei bereziki zabaltzea. Baina 1519.etik hainbat epaik Aranek eragiten zien baztertzea bertan behera uztera agindu bazituen arren, oraindik hamarkada luzetan jazarpena eta irainak jasan behar izan zituzten agoteek.

400 urteren ondoren, kanpotarrak ez dira Bailarara iristen, Europa osora baizik. Orain ere, guztion begiradapean jarraitzen dute eta inork ez du bere lurraldea eurekin partekatu nahi. Zer gutxi egin dugun aurrera norabide horretan!

Zuzenketa

Udako egun hauetan Bidankozarteko azken zenbakian akats bat zegoela esan zidaten, zehazki toponimiako atalean *Iturribeltza* edo *Turrubeltzaz* aritzen zen artikuluan.

Testuan esandakoa orokorrean zuzena bada, erdarazko bertsioan agertzen zen argazkia okerra zen, *Kaminerorean iturria* zela esaten zidatenez, eta ez duela zerikusirik *Iturribeltzarekin* (beste batzuk, ordea, *Kaminerorena* duela gutxiko kontua dela eta hori ere antzina *Iturribeltza* izango zela esateari eusten diote).

Bestalde, eta hau ere ez nuen ezagutzen, Bidankozetik ateratako beste guardia zibil bat egon zela esan zidaten, 20. Bidankozarten aurkeztu genuenaz gain: Timoteo Galetx Salbotx [Matxin].

Balio dezatela lerro hauek, bada, bai artikulua bat zuzentzeko bai beste baten informazioa osatzeko.



Sanz ospetsu bat

Egon bada Bidankozen Sanz bat, nahiz eta gehienentzako ezezagun, nahiko altu iritsi zela orain arte bere bizitzaz aurkitutako xehetasunek erakusten dutenez.

Juan Bautista Sanz Otxoaz ari gara, 1851an *Angelena* etxean [Egungo *Jose Maria* etxea] jaioa. Bidankozen 12 urtera arte bizi zen eta orduan ez dakigun beste herri batera joan zen familiarekin (beharbada Eneritz, bere amaren jaioterria).

Nola edo hala, berarengandik jakiten lortu dudana hurrengo Zaragozako Unibertsitatean 1879an Zuzenbide Zibil eta Kanonikoan lizentziatu egin zela eta 1880an bertan ere doktoratu egin zela ere, bere tesia '*Jesukristok egindako Elizaren sorrera. Bere ezaugarriak eta kristau izendatutako sektak bereizteko oharrak*'.

Urte batzuk beranduago, eta prentsa ohar bati esker, badakigu 1901eko uztailean Donostiako Probintziako Epaitegietako Magistratua izendatu zutela, bere esparruko maila handiko kargua.

Eta honen ondoren, arestian aipatutako Juan Bautistari ahozko erreferentziak besterik ez: antzina Aste Santuan elizaren erretaularen aurrean jartzen zen 'monumentua' (lerro hauen gainean dagoena) berak oparitu zuen.

Juan Bautista Sanz Otxoa, sakonago ikertu beharko den pertsonaia interesgarria.

Bidankozeko abizenak: Sanz

Aurreko zenbakian Pasquel abizenarekin hasi ginen, Miquel Martik emandako informazioari esker, Pasquelen historia eta genealogia sakontasunez (espazio honetan erakutsi izana baino askoz gehiago) landua zuenak.

Oraingoan Sanz abizenari buruz arituko gara, 1702. urtetik gaur egun arte jaiotako bidankoztarren artean ugariena den abizena, hori bai, beti Urzainki abizenarekin lehian. Azken 300 urtetan jaiotako Bidankoztarren %10,92ak lehen abizen bezala izan zuten, eta, bigarren abizen bezala izan dutenak gehitzen baditugu, Bidankozen jaiotako ia %18,5a (ia bostetik bat) Sanz izan da. Erraz esaten da ...

Sanz patronimikoa Bidankozen gutxienez hiru mendez etengabe mantendu izan da, gure herriko jaiotza-erregistroak irauarazi diren denboraldia, hain zuzen ere. Badirudi hori baino lehen joera antzekoa zela.

Honela, 1677. urtean egindako *populazio apeoan* Bidankozeko 70 etxejabetik seik zeramaten Sanz abizena.

Izaera berdineko baina 1645 urtekoa den dokumentu batean bost Sanz badaude, haietako lau emakume izanda (hiru alargun eta ezkongai bat). Datu hau bereziki esanguratsua da, Bidankozen garai horretan 24 etxe jabe emakume zeudelako, bai alargun (17), bai ezkongai (7). Hau da, ia hiru etxetatik bat emakumeek zeramaten, garai hartan ezohikoa zen kontua [1677ko agirian, esaterako, jabetzat emakume bat zuten etxeak bost besterik ez ziren]. Argi dago zer edo zer gertatu izan zela 1645

baino pixka bat lehenago Bidankozeko biztanleria modu horretan aldatzeko, batez ere gizonezkoiei dagokienez, baina arrazoia oraindik ezezaguna zaigu...

Eta, hortik atzera, gure eskura dauden dokumentuen arabera, Sanz familia kopurua gutxi gorabehera iraunkor mantendu egin da, 70 familiatik hiru inguruan izanda, gutxienez 1501. urtera arte.


Gure herriko populazioari buruzko hurrengo dokumentua aurkitzeko 1368. urtera arte bidaiatu behar dugu, tartean abizen finkapen prozesua geratuz. Hori dela eta, XIV. mendearen erdialdean Bidankozen, nahiz eta Santxezen bat topatu, ez dugu Sanz aztarnarik aurkitzen.

Eta zer harreman dauka honek? Sanz eta Santxez abizenak esanahi bera dutela, '*Santxoren seme*', hain zuzen ere. Beraz, beharbada familia lerroren bat mantendu izan zen, baina abizen forma aldatuta, batek daki...

Hala bada, Sanz abizena modu batean edo bestean izan ez duen etxea ez dugu erraz aurkituko azken bost mendeetan. Horregatik, ziur aski, abizen hau ezin da falta etxeren baten izenean. Hor dugu, izan ere, *Santxena* etxea, *Sanz-ena-tik* edo *Santz-ena-tik* ("*Sanz-en etxea*") abiatu izan zena. Baina, bestalde, gure herrian mendeetan zehar Sanz izeneko horrenbeste familia egonda, zergatik egotea *Sanz-ena* izeneko etxe bakara? Ziurrenik erantzuna ez dugu inoiz jakingo.

Hona arte iritsi da, bada, Sanz, gure abizen nagusienetako bat.

Maria Ysabel Sanzen bataio-agiria, 1702koa, Bidankozen Sanz batena existitzen den zaharrena.



Bidankozeko etxeei gure bira partikularrean *Iriburua* auzotik hasiko gara berriro, *Salsipuedes* karrika ixten zuen etxeetako batekin: *Aizagar*.

Gaur egun *Paskel* familiarena den etxean 1931. urtera arte jendea bizi zen, *Aizagar* etxeak bertan bizitako azken familiaren abizena hartuz.

Familia hau etxea utzi ondoren, 1939ko udazkenetik 1941era arte, *Salsipuedes* karrikako beste bi etxeekin batera (*Laskorna* eta *Bortiri*), herrira iritsitako ehunka langile behartuak aterpetzeko erabili zen. Gure Bidankoze haien kontzentrazio-esparru bihurtuz, baldintza tamalgarrietan, piko eta palekin, Igari-Bidankoze-Erronkari errepedea egiten hasi ziren.

Aizagar familiaraitzuliz, esan behar da 1860ko hamarkadan Bidankozera heldu ziren errotariak zirela, beraz, Bidankozen ez dute jatorririk (seme-alabak aitalan egin zuen herri ezberdinetan jaiotzen). Bigarren belaunaldia, Fernando Aizagarrena, Bidankozen gelditu zen, baina 1894ra arte ez ziren etxe honetara iritsi, aurretik herriko beste bi etxetan maizter ibilita.

Argi gelditu da Aizagar abizenaz ari garenean, gure herrian nahiko berria den izenari buruz ari garela, askoz jota 122 urte. Etxearen aurreko izenez beranduago arituko gara, baina oraingoz, etxearen historian atzera egiten jarraituko dugu.

A z k e n belaunaldietan etxe honetan bizitako azken familia Garin Paskualenatarrak ziren, 1891ean etxea utzi zuten arte, ordutik aurrera *Garin* (eta *Montes* beranduago, *Bidankozarte* aldizkariko 12. zenbakian azaldu zen bezala) bezala ezagutuko zen etxera pasatzeko. Ez Garin ezta Pascualena ere ez dira ohiko abizenak gurean, beraz, nor zen etxekoa? Bada, emaztea, hau da, Maria Frantziska Paskualena Salbotx, Jose Maria Paskualena igariarra eta Frantziska Salbotx bidankoztarraren alaba, ama etxe honetakoa izanda.

Aizagar etxea, antzina *Bortasena* etxea, *Salsipuedes* karrikan



Aizagar etxea

Familia hau etxea zergatik utzi zuen ez jakin arren, baliteke '*Nire erresuma bi astorengatik*' artikuluan aipatutakoarekin lotura izatea.

Etxearen izenari dagokionez, argi dago aurretik beste izen bat bazuela, baina zein? Erantzuna duela urte batzuk Salbotx etxeari buruzko 1864ko notario-idazki batzuetan ezustean aurkitu nituen. Bertan *Iriburua* karrikan dagoen *Bortasena* izeneko etxe bat aipatzen zen. Etxe horren mugak aztertuz, garaiko etxe-jabeak arakatu ondoren eta antzinako izen ezaguna dituzten etxeak baztertuz, konklusio batera iritsi nintzen: *Bortasena* zen *Aizagar* etxearen antzinako izen.

Ez dago argi *Bortasena* izena nondik datorren, baina ziur aski Bidankoze gutxienez 1612tik 1727ra arte egon zen Portaz abizenarekin lotura izango du. Behar bada, hasieran izena *Portazena* izango litzateke eta, denbora eta ahoskeraren poderioz, *Bortasena* bilakatu zen. Edo agian notarioak dokumentua egin zuenean, agiria eskatu zuenarengandik entzundakoa ahal izan zuen moduan idatzi, eta hori da iritsi zaiguna.

Ba, honaino *Aizagar* etxearen historia, hemendik aurrera pixka bat ezagunagoa egingo zaiguna.

Nire erresuma bi astorengatik

1882. urtea zen eta III. Gerra Karlistaren gerraostea bizi zen. Agerikoa da krisi garaia izango zela eta, beraz, ez zen ez lan handirik ez jateko askorik egongo.


Horrela gauzak, Jose Maria Paskualena igarriarrak, *Bortasena* etxera [egungo *Aizagar* etxea] ezkondua, muga zeharkatua zuen lan bila. Egun batzuk pasata eta bilaketan zorte izan gabe, etxerako itzuli eta bidean Frantziska Perez bidankoztarrarekin egin zuen topo, antzinako *Mailusa* etxekoa [egungo *Udaletxea*]. Hau seme bat bisita egitetik bazetorren eta erositako bi asto ekartzen zituen. *Mailusa* etxean, nonbait, une hartantxe ez zuten astoentzako tokirik eta Jose Mariak lehenengo gau hartan bere

kortan gordetzea eskaini zion.

Bestalde, karabineroek Bidankozera aduanan aitortu gabeko bi astoren iristearen berri izan zuten, eta bai Jose Maria bai Frantziska atxilotu zituzten.

Bien aitortenak bat etorri arren, eta Frantziskak Jose Maria errugabetu arren une oro, biak kontrabando egiteagatik epai-prozesu batean sartu ziren eta honek bakoitzari 700 pezeta eskainarazi zion.

Ziur aski kontu honek familia honetako *Aizagar* etxea uztearekin zerikusia izango du, eta baita ere Jose Maria Paskualenaren heriotzarekin lau urte beranduago besterik ez, era honetan galtzen '*bere erresuma bi astorengatik*'.



Argazkia: Jesús Elósegui Irazusta
1954/04/17

Lapitxorronga

Bitxikeri moduan, izenak tamaina txikia eta herrian erabat txertatua dagoen hitzari aipamena egiten badio ere, ez da mapetan ageri, nahiz eta toponimiari buruz azken hamarkadan argitaratutako hainbat lanetan bai aipatu.

Fisikoki, ikusi daitekeenez, orain milaka urte *Elizarenaren Pakoa*, *Lapitxorronga* eta *Igariarenak* haitz zabal eta bakar bat osatuko zuten, *Bintze* ugaltzak sorturiko higadurak, *Elizarenako sakanak* batetik eta *Igariarenak* bestetik, paisaia eraldatuko zuten egun ezagutzen duguna sortu arte.

Iker dezagun gure talaia partikularren izena. Ziurrenik edozeini Bidankozeko haitzaren izenaz galdetuz gero *Pitxorronga* dela erantzungo luke. Zentzuzkoa.

Gai honen inguruan, orain urte gutxi batzuk bazkalosteko elkarrizketa bat gertatu zen Bidankozeko herriko jaietan. Alde batetik, Bidankoze maiz bisitatu zuen gipuzkoar bat zegoen, euskara ezagutzak zituena eta toponimiarekiko zaletasuna. Bestetik, bidankoztarren multzo bat haren zalantzak argitzen saiatzen zena.

Gipuzkoarrak, *Pitxorrongak* euskal erorrik ez zuela azpimarratzen zuen,

ez zegoela inguruko herrietan horren antzik zuen toponimorik eta, agian, haitzak aurretik beste izenen bat izango zuela.

Bidankoztarrek, halako galderak *jokoz kanpo* harrapatuak bezala, bizkarrari eragin eta hura *betidanik La Pitxorronga* izan zela adierazi zuten, inork ez zuela beste izenik ezagutu.

Eta hor dago kokka: Haitzak *Lapitxorronga* du izena, dena elkarrekin, nahiz eta gaztelerak ohiko hizkuntza gisa euskara ordezkatu zuenean, antza denez, hasierako *la-* hori artikulua determinatzaile femeninotzat itzuli zutela.

Orduan, zer esan nahi du? Bada, esanahia oso argi ez badago ere, gutxienez bere lehenengo zatia argi dago, *'lapitz'*, *'lurrazalean aurkitzen den haitza'* esan nahi du. Bigarren zatia, *'orronga'*, agian *'erronka'* hitzaren garapena da, batzuk mehaka edo mehargune gisa itzuli dutena, eta horregatik agian hasieran *Lapitxorronga* ez luke haitza izendatzeko balioko, *Elizarena* eta bere arteko igaro bideari baizik, *'haitzaren mehargunea'* antzeko esanahia hartuz.

Hemendik aurrera beraz, badakizue, *Lapitxorronga* esan behar da eta ez *Pitxorronga*.

2015 eko abuztuko *'Bidankozeren inguruko mitoak'* hitzaldian toponimo hau jorratu banuen ere, oraindik ez nuen argitalpen honetako toponimia atalean aipatu, eta jakina izenaren adierazgarritasuna kontuan izanik, hurrengo lerroak erabiliko ditut etorkizunean jasoa geratu dadin.

Lapitxorronga, Bidankozeko edonorentzat edota ingurukoentzat aurkezpenik behar ez badu ere, hegoaldeko herriko sarrera zaintzen duen haitz erraldoiari ematen dio izena.

70 artzain bidankoztar (1966/12/16)

Duela 50 urte, Estatuko Lege Organikoaren bozketaren emaitzaren aitzakiarekin, argitaratzearen akats bat zuzentzeko asmotan, *Diario de Navarra* garrantzizko datu soziologiko bat erakutsi zigun.

Bidankozen errolatutako 188 hautesleetatik, 70ek herritik kanpo egoteko ziurtagiria eskatua zuten artzain transhumante zirelako. Honek oraindik duela mende erdia abeltzaintzak zuen

garrantzia erakusten digu, populazio galera izugarria pairatu arren (soilik 1966an 30 biztanle galdu ziren guztirako 291tik, hau da, biztanleriaren %10), ekonomia-jarduera honek hautesleen %37ari ematen zien enplegu, beraz gizonezkoan %70 inguru eta, beraz, familien antzeko proportzioa.

50 urte beranduago besterik ez, artzain-lana galtzeko bidean dago. Aurrerapenaren prezioa izanen da...

Ayer, por olvido involuntario, dejamos de consignar la votación del Valle de Roncal y la Villa de Vidángoz, cuyo resultado, sobre un censo de 188 votantes, fue de 113 sí, 1 no y 1 blanco; haciendo constar que se habían expedido 70 certificaciones a electores que por su condición de pastores se hallan con los ganados en transhumancia ausentes de la localidad.

Diario de Navarra
1966/12/16